

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

EAEn soldatako langileen %9,3k lanaldi partzialeko kontratua dute

Kontratuen %5,9a baino ez dira mugagabeak eta lanaldi osokoak

Urtarriletik urrira bitarte, 13.499 lagunek nozitu dituzte enplegu erregulazioaren ondorioak

Ekonomiek hazten segitzen dute

ELGEko Enplegu-tasa txikienak

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	12 HILABETE LEHENAGO	2003
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA					
JARDUERA TASA EAEn	%	03 IV	69,6	69	69,6
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2001	69	68,9	69
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA EAEn	KOPURUA	03 IV	897.300	891.200	897.300
SOLDATAKO BIZTANLERIA EAEn	KOPURUA	03 IV	725.500	711.000	725.500
ALDI BATERAKOTASUN TASA EAEn	%	03 IV	31,3	33,7	31,3
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2001	13,2		13,2
BIZTANLERI LANGABETUA EAEn	KOPURUA	03 IV	86.800	88.000	86.800
LANGABEZI TASA EAEn	%	03 IV	8,9	9	8,9
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 AZA	8	8	-
"ELGEn	%	03 AZA	7	7	-
GAZTEEN LANGABEZI TASA EAEn	%	03 IV	22,8	21	22,8
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 AZA	15,6	15,3	-
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA EAEn	%	03 IV	12	12,4	12
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 AZA	8,9	8,9	-
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-ABE	948.984	898.871	948.984
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-ABE	73.879	75.562	73.879
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	03 URT-URRI	383	330	-
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-URRI	13.499	6.098	-
LAN ISTRIPUAK					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-IRA	49.579	51.947	-
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	03 URT-IRA	670	704	-
ESKAINZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	03 URT-AZA	1,2	-1,1	-
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	03 ABU	6,5	5,7	-
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	03 IV	79,6	81,8	79,4
BPGa EAEn	% ALD.	03 III	2,1	1,6	2,2
BEGa NAFARROAn	% ALD.	03 III	2,8	2,9	3
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	03 III	2,4	1,9	2,3
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	03 III	0,6	1,1	0,7
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	03 ABENDUA	2,6	4	2,6
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 ABENDUA	1,8	2,2	1,8

* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.

94. zbk. **Egoeraren Azterketa** 2004ko otsaila



Aurkibidea

SARRERA3

EGOERA SOZIAL

ETA EKONOMIKOARI

BURUZKO IRUZKINAK4

1. Ekonomiaren hazkundera4
2. Enpleguaren bilakaera4
3. Sinaturiko kontratuak6
4. Erregulazio espedienteak7
5. Lan istripuak8
6. Prezioak8

HIL HONETAKO

PUNTAKO GAIAK.....8

1. Estatu espainiarreko amak direnen enplegu tasak ELGEtakoarenak baino dexente txikiagoak dira9
2. Biztanle bakoitzeko osasun gastua ELGEko zenbait herrialdeetan10

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

94. Egoeraren Azterketa honetan, EAEko enpleguari buruzko 2003ko laugarren hiruhilekoko informazioa eta urtealdian zehar datu horrek izan duen bilakaera aztertuko ditugu. Arreta berezia egingo diegu Hego Euskal Herrian sinatu diren kontratu motei, eta eguneratu egingo dugu enplegu erregulazioari, lan istripuei, eskaintza eta eskariei, eta prezioei buruzko informazioa. Hil honetako puntako gaietan, amen enplegu-tasei eta biztanle bakoitzeko osasun gastuari begiratuko diegu, Espainiako estatuari buruzko informazioa ELGEko beste herrialde batzuen eta horko batez bestekoaren gaineko informazioarekin konparatuz.

** Txosten hau 2004.eko urtarrillaren 26an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da.*

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

1. Ekonomiaren hazkundera

Ekonomiaren hazkunderari buruz daukagun azken informazioa 2003ko hirugarren hiruhilekoari dagokio. **EAE**n, **BPG**ak %2,2ko igoera izan zuen urteko lehenengo eta bigarren hiruhilekotan, eta %2,1ekoa, hirugarrenean (2002ko hirugarren hiruhilekoan, **BPG**a %1,6 hazi zen). Hirugarren hiruhilekoari buruzko datu horren ostean, 2003ko urtealdia %2,2ko hazkunderaz ixtea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak.

Bestalde, **Nafarroako BEG**a %3,1, %3 eta %2,8 hazi zen 2003an (2002ko hirugarren hiruhilekoan, hazkundera %2,9koa izan zen). Nafarroako gobernuaren aurreikuspenen arabera, 2003ko hazkundera %3koa izango da.

Espainiako estatuko BPGaren igoera %2,4koa izan zen 2003ko 3. hiruhilekoan, aurreko urteko epealdi berekoa (%1,9) baino handixeagoa, alegia. Espainiako ekonomiaren hazkunderari buruzko aurreikuspena %2,3koa da, 2003. urterari dagokionez. **Europako Batasuneko** ekonomia %0,6 hazi zen batez beste aipatu hiruhilekoan; horrek 2002ko epealdi berekoa (%1,1) baino hazkunde txikiagoa adierazten du. **EB**ko ekonomiaren 2003ko hazkundera, batez beste, %0,7koa izango dela aurreikusi da.

BPGAREN URTEARTEKO GEHIKUNTZAK. EAE, NAFARROA, ESPAINIAKO ESTATUA ETA EUROPAKO BATASUNA. 2003.

	I	II	III	2003 AURREIKUSPENA
EAE	2,2	2,2	2,1	2,2
NAFARROA	3,1	3	2,8	3
ESPAINIAR ESTATUA	2,4	2,3	2,4	2,3
EUROPAKO BATASUNA	0,9	0,4	0,6	0,7

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, INE, Eurostat

EAEko **Industri Produkzioaren Indizea** (IPI) %1,2 hazi zen 2003ko urtarriletik azarora bitartean; horrek joera-aldaketa erakusten du urtebete lehenagoko indizeari buruz (%-1,1). Nafarroako Industri Jardueraren Indizeak %6,5eko igoera izan zuen 2003ko urtarrila eta abuztua bitartean, urtebete lehenagoko indizearekiko (%5,7)

nolabaiteko igoera erakutsiz. EAEko Produkzio Ahalmenaren Erabilieraren portzentaia ez dator bat IPIak erakutsitako joerarekin, urtealdiko laugarren hiruhilekoan %79,6koa izan zelako, hau da, aurreko urteko epealdi berekoa (%81,8) baino txikixeagoa.

2. Enpleguaren bilakaera

2004ko urtarrilaren 16an, Eustat (Euskal Estatistika Erakundeak) **BJA**ren (Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzen duen inkesta) gaineko informazioa argitaratu zuen 2003ko laugarren hiruhilekorako. EAEko enpleguak 2003aren amaieran agertzen zuen egoera eta urtealdian zehar izandako eboluzioa aztertzeke aukera ematen digu horrek.

65 urtetik beherako biztanleen **jarduera tasa** %69,6koa izan zen 2003ko laugarren hiruhilekoan, hau da, 6 hamarren igo zen aurreko urteko epealdi berekoaren aldean. Igoera hori emakumeen jarduera tasak (%58,7) izan zuen 1,2 puntuko gehikuntzak eragin zuen, gizonezkoen tasa (%80,5) bere horretan mantendu zen eta.

Lanean dagoen biztanleria 897.300 pertsonakoa da; horietarik, 533.300 (osokoaren %59,4) gizonezkoak dira, eta 364.000 (osokoaren %40,6) emakumezkoak. Horren arabera, urtebetean, 6.100 lanpostu sortu dira EAE, eta, ikus daitekeenez, kasu honetan, alde handia dago generoari dagokionez: 8.000 emakume gehiago daude lanean, gizonen kasuan 1.900 gutxiago direlarik. Beraz, emakumeenetara joan dira bai sortu diren lanpostu berriak, bai gizonek galdutakoak.

Soldatako biztanleria 725.500 pertsonakoa izan da, hots, 2002ko laugarren hiruhilekoan baino 14.500 lagun gehiagokoa. Horrek esan nahi du soldatakoak ez diren baina lanean dabilen biztanleak (enplegu-emaileak, autonomoak, familientzako laguntzan dihardutenak, kooperatibistak, eta abar) 8.400 gutxiago direla.

Hortaz, **alokairupekotatasun tasa** %80,8koa izan da 2003ko azken hiruhilekoan, urtebete lehena-



gokoaren (%79,8) aldean 1,1 puntu igota. Gizonezkoen alokairupekotasan tasa (%78,4) 7 hamarren hazi da 2003an zehar, emakumeena (%84,4), berriz, 1,6 puntu igo delarik.

Behin-behinekotasun tasa %31,3koa da, hau da, 2003koa baino 2,3 puntu txikiagoa. Gizonen behin-behinekotasun tasa (%26,6) 1,3 puntu jaitsi da, eta emakumeena (%37,8), aldiz, 4 puntu. Gazteriak, aitzitik, ez du horrelako zorte onik izan, gazteen behin-behinekotasun tasa (%73,3) 1,3 puntu igo baita 2003an zehar.

Lanaldi partzialeko enplegua ere aintzat hartu beharreko ezaugarrietakoa da. Erreferentziako astean 30 ordu baino gutxiago hartzen dituen lanaldiari esaten diogu lanaldi partzial. Eustat ematen hasi zaigun informazio hori gure aztergaietako bat izango da aurrerantzean. Aldagai horri dagokionez, gizonen buruz aurkeztutako zenbakiak ez dira oso fidagarriak, kopuru txikia denez (15.000 pertsona baino gutxiago) %30etik gorako laginketa-erroreak jotzen du eta. 2003ko laugarren hiruhilekoan, soldatako biztanleriaren %9,3k jardun du lanaldi partzialean; horrek 1,4 puntuko jaitsiera adierazten du 2002ko hiruhileko beraren aldean. Aldagai horrek ere ezberdintasun handiak erakusten ditu generoen artean, izan ere, lanaldi partzialean aritu diren soldatako gizonak %2,9 izan dira, emakumeen portzentaia %18,1 izan delarik. Gizonen lanaldi partzialari dagokionez gertatu den jaitsiera (0,3 puntu) emakumeena (3,3 puntu) baino askoz txikiagoa bada ere, emakumeen lanaldi partzialeko tasa gizonena baino sei aldiz handiagoa da oraindik ere.

SOLDATAKO LANGILEETATIK ERREFERENTZIAKO ASTEAN 30 LANORDU BAINO GUTXIAGO EGIN DITUZTENAK (KOOPERATIBISTAK IZAN EZIK). EAE, 2002,2003-IV.

URTEA/HIRUHILEKOA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2002/IV	10,7	3,2	21,4
003/IV	9,3	2,9	18,1

Iturriak: Eustat, PRA

Langabeak 86.800 izan dira, hau da, 2002ko laugarren hiruhilekoan baino 1.200 gutxiago. Horietatik, gizonak 37.500 izan dira (aurreko ekitaldian baino 250 gutxiago), eta emakumeak, 49.300 (950 gutxiago). Horren arabera, langabezia dauden biztanleetatik %43,2 gizonekoak dira, %56,8 emakumeei dagokiolarik.

Langabezi tasa %8,9koa izan da, 2002ko azken hiruhilekoan baino 0,15 puntu txikiagoa, alegia. Atal honetan, aipagarria da gizonen langabezi tasa (%6,6) berdina geratu dela, emakumeena (%12) 0,4 puntu jaitsi eta gazteena (%22,8) 1,8 puntu igo delarik.

Beraz, laburbiltzeko, esan dezakegu 2003a, orokorrean, ez dela urte ona izan EAEko enpleguari dagokionez, izan ere:

- Langabeziaren murrizketa oso txikia izan da.
- Langabezi tasa %9aren inguruan dago geldirik.
- Enplegua sortu bada ere, oso lanpostu berri gutxi izan dira, aurreko urteetakoen alderatuta.

2003an behin-behinekotasuna murriztu izana datu pozgarria da, batez ere nazioarteko egoerarekin konparatuta, EBn langabezia apalki igo baitzen.

3. Sinaturiko kontratuak

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak (Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales) argitaratutako informazioak Hegoaldean sinatutako kontratuei buruzko azterketa zehatzagoa egiteko aukera ematen digu. 2003ko urtarriletik urrira bitarte, 791.989 lan kontratu sinatu ziren Hego Euskal Herrian; horietatik %51 gizonek sinatu zituzten, eta %49 emakumeek.

Iturri horrek aldi baterako lan enpresei (ABLE) buruzko informazioa ere aztertzea ahalbidetzen digu. Zehazki, 2003ko urtarrila eta iraila artean, Hegoaldean *aldi baterako 72 enpresa zeuden*, urtebete lehenago (78) baino 6 gutxiago, hain zuzen ere. Enpresa horien bidez, 136.800 kontratu sinatu ziren 2003ko denborartean, hau da, 2002ko epealdi berean (125.937) baino 10.863 gehiago. Datu hori denboraldi horretan sinatutako aldi baterako kontratuen kopuruarekin alderatuta, aldi baterako lan enpresek, gutxi gorabehera, Hego Euskal Herrian sinatzen diren aldi baterako kontratuen %21,5 kudeatzen dituztela atera dezakegu ondorioz. 2002ko epealdi berean, ABLEek kudeatutako aldi baterako kontratuen portzentaia %20,7koa zen; beraz, ehuneko hori igo egin da pixka bat urtarriletik irailera bitarte sinatutako aldi baterako kontratuetan.

Sinatutako kontratuen gaineko informazioa zehaztasun handiagoz aztertzeko, **hiru sail handitan** banatuko dugu sinatutako kontratuen kopuru osoa: 2003ko urtarriletik urrira bitarte sinatutako kontratuetatik 28.425 (kopuru osoaren %3,6) kontratu mugagabe bihurtu ziren; 49, gizarte-laguntzako atxikipean izan ziren, eta 763.515 (osokoaren %96,4), hasierako kontratuak.

Sinatutako kontratuetatik, 729.171, hots, **%92,1**, aldi baterakoak izan ziren. Aldi baterako kontratu horien mota zehatzago aztertuta ikus daitekeenez, 301.888 (aldi baterako kontratu guztien %41,4) behin-behinekoak izan ziren; 284.421 (%39), obra-kontratuak; 120.015

(%16,5), bitarteko kontratuak; 7.152 (%1), praktika-kontratuak; 4.095 (%0,6), bestelako kontratuak; 2.796 (%0,4), prestakuntza-kontratuak; 2.692 (%0,4), erretiro partzialeko kontratuak; 2.649 (%0,3), lan merkatuan sartzeko aldi baterako kontratuak; 2.545 (%0,3), txanda-kontratuak; 821 (%0,1), minusbaliotasuneko aldi baterako kontratuak; 97, ordezkapen kontratuak, eta 49, gizarte-laguntzako atxikipean.

Sinatutako kontratuetatik 62.769, hots, **%7,9**, bakarrik izan ziren **mugagabeak**. Aldagai horretan ere hauteman daiteke sexuen arteko ezberdintasuna: gizonen kasuan, kontratu mugagabeak %8,7 izan ziren; emakumeen kasuan, berriz, %7,2. Sinatutako *kontratu mugagabeen mota aztertzean* ikus dezakegunez, 28.425 (sinatutako kontratu mugagabe guztien %45,3), mugagabe bihurtutako kontratuak izan ziren; 18.691 (%29,8), mugagabe arruntak; 15.310 (%24,4), enplegua sustatzeko kontratu mugagabeak (hau da, langilea bidegabeki kaleratuz gero, merkeen suertatzen diren kontratuak), eta 343, minusbaliatuei egindako kontratuak.

2003KO URTARRILETIK URRIRA BITARTE HEGO EUSKAL HERRIAN SINATUTAKO KONTRATUAK.

		GUZTIRA	MUGAGABEAK	BEHIN-BEHINEKOAK
Nafarroa	Gizonezkoak	91.919	8.989	82.930
	Emakumezkoak	83.280	7.744	75.536
	Guztira	175.199	16.733	158.466
EAE	Gizonezkoak	311.838	26.009	285.829
	Emakumezkoak	304.952	20.076	284.876
	Guztira	616.790	46.085	570.705
HEH	Gizonezkoak	403.757	34.998	368.759
	Emakumezkoak	388.232	27.820	360.412
	Guztira	791.989	62.818	729.171

Iturria: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales



Esan dugunez, 2003ko urtarrila eta urria artean sinatutako kontratuen %7,9 besterik ez ziren mugagabeak izan. Baina, hala ere, **kontratu mugagabe** horiek guztiak ez ziren baldintzarik onenetan egin, hau da, guztiak ez ziren lanaldi osokoak eta jarraituak izan. Zehatz esateko, kontratu mugagabeen (berdin mugagabe arruntak, enplegua sustatzeko mugagabeak, minusbaliatuenak edo mugagabe bihurtutakoak izan) **lanaldi mota** aztertzen badugu, 46.604 (kontratu mugagabeen %74,2) lanaldi osokoak, 13.154 (%21) lanaldi partzialekoak, eta 3.011 (%4,8) aldizkako kontratu finkoak izan zirela ikus daiteke. Horrek esan nahi du sinatutako kontratuetatik %1,7 lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak, %0,4 aldizkako kontratu finkoak, eta %5,9 baino ez zela izan lanaldi osoko kontratu mugagabea.

Lanaldi motaren azterketak ere erakusten ditu generoaren arabera ezberdintasunak, gizonei lanaldi osorako egindako kontratu mugagabeen portzentaia (%7,3) emakumeei egindakoena (%4,4,) baino 2,9 puntu handiagoa baita, emakumeei egindako aldizkako kontratu finkoen ehunekoa (%0,39) gizonei egindakoena (%0,37) baino 0,02 puntu handiagoa delarik.

HEGO EUSKAL HERRIAN 2003KO URTARRILA ETA URRIA ARTEAN SINATUTAKO KONTRATU MUGAGABEEN MOTA ETA LANALDIA

	NAFARROA	EAE	HEH
GUZTIRA			
PARTZIALA	3.314	9.840	13.154
OSOA	12.187	34.417	46.604
ALDIZKAKO FINKOAK	1.230	1.781	3.011
GUZTIRA	16.731	46.038	62.769
GIZONEZKOAK			
PARTZIALA	958	3.082	4.040
OSOA	7.625	21.802	29.427
ALDIZKAKO FINKOAK	404	1.095	1.499
GUZTIRA	8.987	25.979	34.966
EMAKUMEZKOAK			
PARTZIALA	2.356	6.758	9.114
OSOA	4.562	12.615	17.177
ALDIZKAKO FINKOAK	826	686	1.512
GUZTIRA	7.744	20.059	27.803

Iturria: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales

4. Erregulazio espedienteak

2003ko urtarriletik urrira bitartean, 383 **erregulazio espedienteen** fitxa estatistiko baimendu ziren Hego Euskal Herrian; horrek, aurreko urteko denboraldi berarekin alderatuta (330), 53 fitxa gehiago egon direla adierazten du. Espediente horiek **kaltetutako langileak** 13.499 izan ziren 2003ko aipatutako aldi, 2002ko epealdi berean (6.098) baino 7.401 langile gehiago, hain zuzen ere. Beraz, 2003ko urtarriletik urrira bitarte erregulazio espedienteen ondorioak nozitu dituzten langileen kopurua 2002ko tarte berekoaren bikoitza baino handiagoa da.

Enpleguaren erregulazioa hiru modutan gerta daiteke. Aztertutako denboraldian, 149 pertsonak (kaltetutako guztien %1,1) lanaldi murrizketa izan dute; 3.346ri (%24,8) espedienteak kontratuaren behin betiko amaiera ekarri die, eta 10.004ri (%74,1) aldi baterako eten zaie kontratua.

Horrez gain, ez dugu ahaztu behar erregulazio-
etako batzuk Mercedes, ACB, Ericsson, Cabot
eta mozkin handiak lortzen ari diren beste zen-
bait enpresatan egiten ari direla.

5. Lan istripuak


2003ko urtarriletik irailera bitarte, Hego Euskal
Herrian, 49.579 langilek nozitu zituzten baja
eragin zuten **lan istripuak**, 2002ko tarte berean
baino 2.368 gutxiago, hain zuzen ere. Istripu
larriak eta heriotza eragin zutenak 670 izan
ziren, hau da, aurreko urtean baino 34 gutxia-
go. Beraz, datuek erakusten dutenez, lan istripu
guztien zein larri eta heriotza eragin dutenen
kopurua murriztu egin da.

Hala ere, datu horrek ez die garrantzirik ken-
tzen jasotzen diren lan istripu ugari; izan ere,
eraikuntza, adibidez, lanean dagoen biztanle-
riaren %9,9k diharduelarik, lan istripuen %20
jazotzen dira. Sektore horretan, guztira, 515 lan
istripu gutxiago gertatu badira ere, istripu
larriak eta hilgarriak 8 gehiago izan dira.

6. Prezioak

Prezioak %0,4 jaitsi ziren urtarrilean, %0,1 ekai-
nean eta %0,6 uztaillean; gainerako hilabete
guztietan, igo egin ziren, eta, ondorioz, urtear-
teko KPIak %2,6ko hazkundera islatzen zuen
2003ko ekitaldia ixtean. Datu hori zalantzan
jarri dute hainbat iturrik, prezioen igoera han-
diagoa izan zelako sentazioa geratu da eta.
Edonola ere, esan behar da Espainiako gober-
nuak prezioen inguruan egindako aurreikuspe-
nak labur geratu direla berriro ere, eta, beti
bezala, aurreikusitako KPIaren arabera nego-
ziazten diren hitzarmen kolektiboak dituzten
langileak eta diru sarrera txikiak dituzten
kolektiboak, hots, Lanbidearteko Gutxienezko
Soldataren jasotzaileak (LGS) eta pentsiodunak,
izan dira kaltetuenak

**PREZIOEN BILAKAERA
ESPAINIAKO ESTATUAN. 2003**



Iturria: INE



1


Estatu espainiarreko amak direnen enplegu tasak ELGEtakoarenak baino dexente txikiagoak dira

Ondoko grafikoan, 6 urtetik beherako seme-alabak dituzten amen enplegu tasak ikus ditza-kegu. Azterlanak ELGEko 17 estatu kideei buruzko 2001eko informazioa biltzen du.

Enplegu tasari, hau da, 6 urtetik beherako seme-alabak dituzten emakume guztietarik lanpostua dutenen ehunekoari dagokionez, Danimarkak du tasarik handiena (%74,3), atzetik, jarraian, Portugal (%69,8) eta Holanda (%66,4) dituelarik. Espainiako estatuak (%43,3) laugarren tasa txikiena du, bere atzetik Eslovakiako Errepublika (%40,9), Hungaria (%32,9) eta Txekiako Errepublika (%32,5) besterik ez dauzkalarik. Beraz, Espainiako estatuan, 6 urtetik beherako umeak dituzten amen enplegu tasa Danimarkakoa (tasa handieneko herrialdekoa) baino 1,7 bider txikiagoa da. ELGEen, kolektibo horren batez besteko enplegu tasa %56 ingurukoa dela aintzat hartuta, Espainiako estatuko tasa ELGEko batez bestekoa baino 12,7 puntu beherago dago.

Beraz, grafikoak argi uzten du **6 urtetik beherako seme-alabak edukitzeak eragin negatiboa goa duela Espainiako estatuko amen enplegu tasan, ELGEko estatu kide gehienetakoenean baino.**

6 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK DITUZTEN AMEN ENPLEGU TASAK. ELGE, 2001.



Iturria: ELGE



2

Biztanle bakoitzeko osasun gastua ELGEko zenbait herrialdeetan

Grafikoak **biztanle bakoitzeko osasun gastu publikoa eta pribatua** erakusten ditu (erosteko ahalmenaren parekotasuna erabiliz), ELGEko estatuei buruzko 2000ko datuetan oinarriturik. Bertan ikus daitekeenez, osasunean biztanle bakoitzeko gehien gastatzen duen herrialdea AEBak dira (4.631 \$), ondoren Suitza (3.222 \$) eta Alemania (2.748 \$) datozelarik. Osasunean gutxien gastatzen duen estatua Mexiko da (491 \$), eta Eslovakiako Errepublika (690 \$) eta Hungaria (842 \$) dauzka aurretik. Aztertutako 26 estatuetatik, Espainia (1.556 \$) zortzigarrena da atzetik hasita.

Biztanleko **osasun gastu publikoa** aztertzean ikus daitekeenez, Islandia (2.202 \$) da gasturik handiena egiten duena, Alemaniaren (2.063 \$) eta AEBen (2.051 \$) aurretik. Ordena hori ez dator bat biztanleko osasun gastu publikoaren portzentaiari gastu osoan dagokion tokiarenarekin, horren arabera, ehuneko handiena gastatzen dutenak Txekiako Errepublika (%91,4), Eslovakiako Errepublika (%89,6) eta Islandia (%84,4) dira eta.


Biztanleko gastu publiko txikiena Mexikori (228 \$) dagokio, horren aurretik Korea (396 \$) eta Eslovakiako Errepublika (618 \$) daudelarik. Biztanleko gastu publikoak osokoarekiko duen portzentaia aztertzean, ehuneko txikienekoak AEBak eta Korea (%44,3) direla ikus dezakegu, eta hurrengoa, Mexiko (%46,4). Harrigarria bada ere, AEBak biztanleko gastu publiko handiena duen hirugarren herrialdea izanik, berorri dagokio osokoarekiko gastu publikoaren portzentaiarik txikiena, Korearekin batera.

ELGEko batez besteko gastu publikoa, biztanleko, 1.900 \$-koa da, Espainiako estatuaren osoko

gastuaren zenbatekoa baino 344 \$ gehiagokoa, bera bakarrik. **ELGEko biztanleko batez besteko gastu publikoa Espainiako estatuko gastu osoa baino handiagoa izateak** benazko gogoeta eragin beharko lieke Espainiako estatutan gastu publikoa kudeatzen duten instituzioei.

Bestalde, **ELGEko biztanleko osasun gastu pribatua**, batez beste, 1.400 \$-koa da, hau da, Espainiako estatuko biztanleko osasun gastu osoa baino handixeagoa.

BIZTANLE BAKOITZEKO OSASUN GASTUAREN FINANTZAKETA PUBLIKOA ETA PRIBATUA. AEBETAKO \$-ETAN, EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNA ERABILIZ.



Iturria: ELGE